

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA

## 2023-2027



3. zirriborroa – 2024ko otsailak 22

## **AURKIBIDEA**

<b>1. Aurrekariak</b>	<b>3</b>
<b>2. III. Plan Gidariaren jarraipena</b>	<b>9</b>
<b>3. IV. Planaren ardatz estrategikoak</b>	<b>11</b>
3.1. Prestakuntza	13
3.2. Ikerketa eta transferentzia	16
3.3. Kultura eta Gizartea	18
3.4. Pertsonak	21
<b>4. Planaren jarraipena, ebaluazioa eta finantziazioa</b>	<b>25</b>
<b>5. Ebaluaziorako adierazleak</b>	<b>26</b>
<b>6. Eranskinak</b>	<b>33</b>

## 1. AURREKARIAK

Hona hemen UPV/EHUko IV. Euskararen Plana, 2023-2027 aldirakoa. Atzera egiten badugu, gure unibertsitateko lehenengo Euskara Planak honela zioen: ***plan berriak ezin du izan xehetasunez josiriko dokumentu itxia; bada, malgutasuna izan behar du datozen urteetan sortuko diren egoerei zentzuz eta tentuz erantzuteko***. Izan ere, planak etorkizunerako egitasmoak dira, eta etorkizuna nekez iragar daitekeenez, aurkezten dugun plan hau orainaren gainean eraikita dago, orainak eskatzen dituen eginbehar eta helburuek ehundu dute. Aurrerako bidean sortuko dira orain ikusten ez diren aukerak eta erronkak, eta horien arabera moldatu beharko da hemen aurkezten den ibilbide-proposamena.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen IV. Plana abiatzerakoan, beharrezkoa da aurretik denboran atzera egitea eta orain arte egindako bideari begiratzea. Izan ere, Unibertsitatearen sorreratik Estatutuetan 8. artikuluan bertan argi jasota dago helburu dituela kalitatezko goi-mailako irakaskuntza eskaintzea, eta euskara eta euskal kultura sustatzea, eta berariaz jasota dago 4. artikuluko helburuetan euskararen garapena eta normalizazioa indartzea; hain zuzen ere, adierazita dago 91. artikuluko laugarren puntuan erakundeak neurriak hartuko dituela euskararen erabilera normaltzeko unibertsitateko irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazioaren eta zerbitzuen alorreko jardueran.

UPV/EHUk euskal hezkuntza komunitatea ardaztu behar du Euskal Herrian eta haratago; UPV/EHUk funtsezko ardatz eta eragile izan behar du euskararen biziberritzean. Bere egitekoen artean, EAEtik kanpoko euskal hezkuntza-komunitate, unibertsitate eta eragileekin elkarlanean jardun behar du. Elkarlan hori areagotu eta sustatu asmo du UPV/EHUk, bai Nafarroako eta Iparraldeko esparruetan eta baita euskal diasporako eragileekin, horiekin elkar trukeak sendotu eta bizkorturik. Lan munduan, aisialdian, derrigorrezko hezkuntzan, edota hedabideetan euskararen normalizazioa aitzinarazten lagunduko du UPV/EHUk, era berean.

Azkenik, Estatutuetak 115. artikulua dio UPV/EHUk euskararen erabilera normaldua bultzatu, eta unibertsitateko kideek euskara ikasi dezaten ahalbidetuko duela, horretarako egingo dituen planen arabera. Eta 116. artikuluan eskubide hauek aitortzen zaizkie unibertsitateko kideei: (a) Hizkuntza ofizialetako edozeinetan jardutea; (b) Hizkuntza ofizialetako edozeinetan izatea harremanak UPV/EHUko organoekin; (c) Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea; (d) Ikerlanak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin, argitaratu eta defendatzea.

Sorrerako Estatutu horietatik abiatuta eta haietan jasotako asmoak gauzatu nahian, 2007az geroztik euskararen hiru plan gidari sortu eta jarraitu ditu UPV/EHUk, hemen duzun hau laugarrena izaki. Planak egiten hasi baino lehen, gure unibertsitatearen hasierako hamarkadetan, 1990-1998 eta 1999-2006 tarteetan, euskararen normalizatorako plangintza bi egin ziren, planen aurrekari. Ez gara, beraz, hutsetik abiatzen, UPV/EHUk sortzetik bertatik izan baitu euskararekiko ardura berezia. Orain arte egindako bidea eta han ikasitakoa baliatu nahi izan dugu esku arteko plan hau

gauzatzeko. Aurrekari guztiak <sup>1</sup> zerrendatzea luzea da eta indarrean daudenak baino ez ditugu aipatuko; zehazki, dokumentu hauetan oinarritu gara IV. Euskararen Plan Gidari hau diseinatzeke:

- **UPV/EHUko III. Euskararen Plan Gidariaren Jarraipena:** III. Planak jarraipenerako 15 adierazle proposatu zituen. Aginte-taula baten bidez, planaren indarraldian adierazle horien bilakaera eta egoera azaltzen du jarraipen dokumentu honek. Halaber, graduko irakas-eskaintzaren bilakaeraren berri ematen da, campusen arabera. Datu horiek guztiak baliagarriak dira gaur egungo egoera ezagutzeko eta etorkizunerako helburu eta ekintza zehatzak ezartzeko.
- **UPV/EHUko 2022-2025 Plan Estrategikoa.** Plan honetatik euskararen IV. Planak bost helburu jasotzen ditu: bata, gaitasun masterretan euskararen eskaintza zabaltzea; bigarrena, euskara sustatzea kalitatezko berezko eta etengabeko prestakuntzan; hirugarrena, euskaraz eginiko ikerketa sustatzea, eta beste hizkuntzetan egindakoa euskaraz zabaltzen laguntzea; laugarrena, lider izatea euskal gizartearen kultura zientifikoan eta humanistikoan, arreta berezia jarritz euskarari eta euskal kulturari; azkenik, bosgarrena, pertsonen egokitzapena eta prestakuntza indartzea, aintzat harturik unibertsitatearen eginkizuna eta ikuspegia.
- **AROA:** euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko marko estrategikoa. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2024ko urtarrila. UPV/EHUk plan honetan urratu nahi diren bidearekin bat egiten du, alegia, AROAk proposatzen dituen estrategia nagusiekin.
- **EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak** Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13ko bileran onartuak.
- **Euskararen Agenda Estrategikoa (2021-2024).** Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sortutako dokumentua, hizkuntza plangintza aurkezten duena. Unibertsitateari dagokionez, hauxe zehazten du:
  - 3. ekinbidea. Euskarazko prestakuntza eta ikerketa sustatzea.
  - 4. ekinbidea. Online prestakuntza-eskaintza bultzatzen duten programak indartzea, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.
  - 5. ekinbidea. Gradueta eta graduondokoetan titulazio eleaniztunen ezarpena sustatzea.

66. konpromisoa. Zuzentasuna, berdintasuna eta euskara sustatzea euskal unibertsitate-ekosisteman.

---

<sup>1</sup>Ikus bidez euskara-planak eta arautegiak hemen: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/aurkezpena/euskara-planak>

- **Euskararen Ingurune Digitala. Gomendioak (2021-2024).** Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak sortutako dokumentua.

Horretaz guztiaz gain, Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat lantzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena. Txosten hau idazten dugun datetan, oraindik dekretu hori onartu ez bada ere, unibertsitatea aipatzen du berariaz: ***"Dekretua bere osotasunean aplikatuko zaio Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan diharduten langileei; bere irakasle eta ikertzaileei, ordea, ez zaie aplikatuko"***. Beraz, argitaratzen denean, aintzat hartu beharko dira hango edukiak. Bitartean, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta hura garatzeko onartu diren plangintza-aldietako edukiak hartu ditugu aintzat, baita onartuko den dekretuaren zirriborroan ezartzen diren norabide nagusiak ere. Besteak beste, Bikain Ziurtagiriarekin lotutako ibilbidea eta kontratuetako hizkuntza-klausulen jarraipena.

Garrantzitsua iruditzen zaigu Euskararen Plana UPV/EHUko Plan Estrategikoarekin lerrokatzea eta bat etortzea, eta, horregatik, han biltzen diren lau ardatzetan antolatu dugu plan hau:

1. Prestakuntza
2. Ikerketa eta transferentzia
3. Kultura eta gizartea
4. Pertsonak

Gainera, euskal gizartean erreferentzia eta eredu izateko, datozen urteetan garrantzi berezia eman nahi zaien hainbat eraldaketa-elementu zehaztu ditu Plan Estrategikoak. Zeharkakotasunaren ikuspegitik, sektore hauek aukera ematen digute ardatz bakoitzean ekintzak zehazteko. Horregatik, ardatz nagusi hauekin batera, Plan Estrategikoak zeharreko ardatz batzuk ere hartzen ditu kontuan: Nazioartekotzea, Eraldaketa Digitala, Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Komunikazioa. Zeharreko ardatz hauek zuzeneko eragina dute UPV/EHUko euskararako bete behar duen lekuan eta plan honek bereziki kontuan hartu nahi izan ditu erronka berri hauek ere.

Nazioartekotzea zuzenean dago lotuta eleaniztasunarekin; gure hizkuntza ofizialez gaindi, geroz eta kreditu gehiago eskaintzen dira UPV/EHUko ingelesez gradu askotan eta graduondokotan. Hiru hizkuntzen arteko oreka mantentzea erronka berria dugu, eta eleaniztasunak dakartzan aukerak eta arazoak kontuan hartu beharko dira, geroz eta gehiago, euskararen kudeaketa egitean. Baina nazioartekotzeak badakar euskara eta euskal kultura Europan eta munduan zehar ezagutzeko aparteko aukera, baliatu behar duguna, gurera etortzen diren atzerriko ikasle eta irakasleei euskara eta euskal kultura irakatsita; hala nola, gure etxetik beste unibertsitateetara doazen ikasle eta irakasleek zabaldua.

Eraldaketa Digitalak aipamen berezia jaso behar du plan honetan. Adimen artifizialaren sorreraren garaia dira hauek, zaila da digitalizazioak ekarriko digun iraultzaren nondik

norakoak bereiztea gaur egungo talaiatik<sup>2</sup>. Zalantzarik gabe, erronka handia izango da datozen urteetan digitalizazioari heltzea, baina aurreikuspenak egitea zaila da, azkar garatzen ari den arloa baita. Hala ere, uste dugu hizkuntza-teknologiek eta adimen artifizialaren erabilerak aukerak ekarriko dituela euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, euskaraz sortzeko, itzulpenak gutxitzeko, eta, azken finean, unibertsitateko eragileek autonomia lortzeko euskarari beharrezko lekua emateko orduan.

Garapen Jasangarrirako Helburuak barne hartzean erreferentzia esparru global batean kokatzen gara, unibertsitate-jarduerak barne hartzen dituen. UPV/EHU aitzindaria da unibertsitatearen lana planetaren erronka handiekin lerrokatzen **2030 EHUagendarekin**, ekarpen egiaztagarri eta pragmatiko bat eginez. NBEk onartutako hamazazpi Garapen Jasangarrirako Helburuei beste bat gehitu die 2030 EHUagendak, euskarari eta euskal kulturari loturikoa hain zuzen ere, UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak eraginik.

Komunikazioa nahitaezko betebeharra da UPV/EHUUn, etengabe jardun behar dugulako gure ingurune sozioekonomiko eta kulturalarekin. Elkarrizketa horretan, unibertsitateko kide guztiek lagundu behar dute, gure baitan sortutako ezagutza gizartearekin partekatzen. Horri lotuta, gure erakundeak barne-komunikazioa ere zaindu behar du, informazioa partekatzeko bide egonkor eta etenik gabeak ahalbidetu. Honetan denean, euskara atzenduta gelditu ez dadin ahalegindu behar gara, UPV/EHUren lehen hitza euskaraz egin dezan, bai kanporako zein barnerako komunikazioan. Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea bermatu behar dugu eta, horrekin batera, lan-hizkuntza ere izan dadila gure eguneroko jardunetan.

Gure unibertsitateko hurrengo lau urteetarako euskara plana egitean euskararen egoera gogoan izan behar dugu. Izan ere, 2021 urteko VII. Inkesta Soziolinguistikoa argi erakusten du EAEn euskararen ezagutza geroz eta zabalduago dagoela gure gizartean, batik bat gazteen artean<sup>3</sup>.




Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021

<sup>2</sup> Ikus bedi *Euskal Hedabideen Urtekaria 2022-2023*. Han, adimen artifizialak euskarari nola eragingo dion egiten da gogoeta, hainbat aldetatik (<https://behategia.eus/eu/urtekaria/urtekaria-2022-23/>)


<sup>3</sup> Inkesta Soziolinguistikoa 16 urtetik gorako datuak jasotzen ditu.

Euskaldun gehien biltzen dituen adin tartea 16 eta 24 urte bitarteko gazteek osatzen dute, hain zuzen ere gure ikasleen adin taldea: horietatik % 74,5 euskaldunak dira, Inkesta Soziolinguistikoko grafiko honek erakusten duen legez:



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021

Ezagutza-maila hori jardunean nola islatzen den jakitea oso lagungarria izan daiteke erabilera sustatzeko estrategiak sortzen laguntzeko. VII. Inkesta soziolinguistikoa dioenez, *“Azken 30 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera 6,4 puntu egin du gora EAEn.(..) Euskararen erabilera hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan gertatu da”*.



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021

Datu hauek gorabehera, ezagutzaren eta erabilera arteko desoreka handia askoren kezka da; unibertsitatean bertan prestakuntza euskaraz eskaini bai, baina euskara

## UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

nahikoa ez dela erabiltzen. Unibertsitatean euskararen erabileraren egoera ondo ezagutzeko helburuarekin egin ziren aurreko III. Planaren indarraldian inkesta soziolinguistiko bi: batetik, Siadecok 2020an UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuen lanpostuetako hizkuntza-erabileraren diagnostikoa eta, bestetik, Soziolinguistika Klusterrak gidatutako erabilera informalarari buruzko inkesta. Erabilera datu horien azterketa kualitatiboei ekitea da hurrengo, emaitzak interpretatu eta gogoeta egin, euskararen erabilera erraztu eta sustatuko dituzten ekintza ahalik eta eraginkorrenak proposatu ahal izateko; ikasleek, langileek eta hiritarrek oro har unibertsitateko zerbitzua euskaraz jasoko dutela bermatzeko.

Horietan guztietan oinarrituta, aurrera begira jarri nahi izan dugu, baina garbi izanik plan gidari honetan epe labur eta ertainerako helburuak eta ekintzak landu behar genituela, asmo onak izanda ere ezin ginela aurrerago joan, berez ez dagokigulako, eta bereziki azpimarratu helburuen eta ekintzen egingarritasuna edo benetan gauzatzeko edo aurrera eramateko aukera. Horregatik, plan zehatza eta zuzena egin nahi izan dugu, argia eta garbia, ulergarria eta gauzatzeko modukoa.



## 2. III. PLAN GIDARIAREN (2018-2022) JARRAIPENA

Euskararen III. Plan Gidariak lau urteko indarraldia izan du, 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra artekoa. Planaren erdialdean tarteko jarraipena egin zen eta planaren bukaeran azken jarraipen dokumentua ekoitzi zen. Dokumentu horiek biak hemen daude argitaratuta: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/euskara-ehun>.

III. Plan Gidariaren erronka nagusia eta lehentasunezko gaia izan da, graduen irakas-eskaintza euskalduntzea, batez ere, nahitaezko ikasgaietan. Egindako lanak izan ditu emaitzak: graduetan eskainitako ECTS kredituen % 94,4 euskaraz dira. Nahitaezko ikasgai gehienak euskaraz eskaintzen dira (% 96,5) eta hautazko ikasgaietan urratsak eman dira, baina oraindik bada bidea egiteko.

Era berean, III Plan Gidariak gradu guztiak euskalduntzeko helburu batzuk proposatu zituen, eta planaren amaierarako helburu horiek ia bete egin dira (% 93,8).

Irakasgaiak euskalduntzeko ezinbestekoa izan da irakasle euskaldunak kontratatzea, eta planaren hasieran ezarritako helburua gainditu da. Planaren amaieran, irakaskuntza-gaitasuna duten jardunaldi osoko irakasle-plaza elebidunak<sup>4</sup> % 70, planaren hasieran baino 12 puntu gehiago. Irakasle-plaza guztiak aintzat hartuta, elebidunak % 66 dira.

Graduak euskalduntzearekin batera, euskaraz matrikulatzen diren ikasleen kopuruak ere gora egin du eta planaren hasieran ezarritako helburutik oso hurbil geratu dira.

III. Plan Gidariak graduondokoak euskalduntzeko bidea urratu nahi izan du, eta izan dira aurrerapenak alor honetan: master ofizialetan eskainitako ECTS kredituen kopuruak gora egin du (% 14,1) eta euskaraz egindako doktore tesiek ere gora egin dute, ezarritako helburura iritsita (% 12,9).

Unibertsitatearen egitekoa da ikerketaren eta ezagutzaren zabalkundea egitea eta bide horretan lortutako emaitzak esanguratsuak izan dira. Ikertzaileek euskaraz argitaratutako artikuluen kopuruak gora egin du, eta euskarazko argitalpenen kopurua mantendu egin da.

III. Euskararen Plan Gidariaren beste helburu nagusi bat UPV/EHUen euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzea zen, bai eta lan-hizkuntzarako bidean abiatzea ere. Helburu hori lortzeko, oso garrantzitsua izan da TEKAZELen euskalduntzea, langile horiek baitira UPV/EHUen administrazio publikoaren ordezkariak, hiritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dituztenak.

Halaber, unibertsitatearen jarduna euskalduntzeko, ikastegi eta zerbitzuak BIKAIN Ziurtagiriaren ibilbidean barneratzeko egin dira ahaleginak. Bide horri ekiteko bultzada eta laguntza eman zaie hainbat ikastegi eta zerbitzuri, eta emaitza onak lortu dira, kontuan hartuta III. Planaren indarraldian sektore publikoari eragiten dion BIKAIN

---

<sup>4</sup> Aurreko planari jarraiki, *elebidun* hitzaren adiera da euskara eta gaztelania dakien hiztuna.

ziurtagiriaren prozesua egokitu eta epealdi batean etenda izan dela; hala ere, guztira, sei ikastegik eta zerbitzuek lortu dute ziurtagiria III. Planak iraun duen bitartean.

### 3. EUSKARAREN IV. PLANAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Arestian aipatu dugun bezala, Euskararen IV. Plan Gidari hau UPV/EHUko azken plan estrategikoaren lerratu nahi izan dugu; horrela, Plan honen ardatz estrategikoak han jasotzen direnak dira. Zeharkakotasunez proposatzen diren gaiak (nazioartekotzea, digitalizazioa, garapen jasangarriko helburuak, komunikazioa) aintzat hartu ditugu helburuak eta ekintzak diseinatzeko sasoian.

IV. Plan Gidaria diseinatzeko orduan, jomuga hauek izan ditugu gogoan:

- a) Ikasleek euskaraz ikasteko aukera izatea: graduetako derrigorrezko eta hautazko ikasgaiak, masterrak, esperientzia-gelak, etab.
- b) Euskarazko kalitatezko irakaskuntza eskaintzea.
- c) EAEko sektore publiko guztiek bezala, herritarren administrazioarekin dituzten ahozko eta idatzizko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea.
- d) Nahi duten langileei euskaraz lan egitea ahalbidetzea, eta prest dauden ikastegi, zerbitzu eta ataletan hizkuntza-ohituren aldaketa sustatzea.
- e) Euskara-planaren lidergoa zuzendaritza guztietara zabaltzea, norik bere ardurak har ditzan.
- f) Plantilla elebidunaren hazkundera ahalbidetzen duten neurrietan aurrera egitea.

Jomuga hauek ondorengo ardatz estrategikoen eta bakoitzari dagozkion ekintzen bidez beteko dira:

#### 1. ardatza: prestakuntza

- 1.1 helburua: Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.
- 1.2 helburua: Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.
- 1.3 helburua: Gradueta euskarazko irakas-eskaintza handitu.

#### 2. ardatza: ikerketa eta transferentzia

- 2.1 helburua: Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu.
- 2.2 helburua: Euskarazko aldizkari akademikoen eta bildumen kalitatea hobetu eta zabalkundera egin.
- 2.3 helburua: Euskaraz ikertzeko, datu, baliabide eta zerbitzuak hobetu eta zabalkundera egin.

#### 3. ardatza: kultura eta gizartea

- 3.1 helburua: Unibertsitatearen euskararen erreferentzialtasuna indartu gizartean.
- 3.2 helburua: Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.
- 3.3 helburua: Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

**4. ardatza: pertsonak**

4.1 helburua: Unibertsitateko langileak euskaldundu.

4.2 helburua: Zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatu.

Hurrengo orrietan, ardatz estrategiko bakoitzaren sintesia eta helburu bakoitzaren ekintzak deskribatu ditugu.

## 1. PRESTAKUNTZA

Urteetan egindako lanaren ondorioz, UPV/EHU prestakuntza euskaraz jasotzeko aukera oso zabala da. Aurreko planetan martxan jarritako ekimenek uzta eman dute eta, aurrerapen nabarmena egin dugu graduako eskaintza euskalduntzen. Aurrerapen horren gakoak izan dira: irakasle-plaza elebidunen aldeko politika, euskaraz matrikulatzeko estrategia aktiboak eta euskarazko irakas-materialak argitaratzea. Plan Gidari honek alor horietan egindako aurrerapenetan sakontzeko helburua dauka, helburu berri batzuekin batera.

Nahitaezko irakasgaiak euskalduntzea zen III. Planaren lehentasuna, eta helburu hori ia betea dago, graduetako nahitaezko irakasgaien % 96,5 euskaraz eskaintzen baita UPV/EHU. Gure unibertsitateko graduetako nahitaezko ikasgaiak euskaraz eskaintzen dira, ia oso-osoan, eta gutxi dira nahitaezko ikasgai batzuk oraindik euskaraz eskaintzen ez dituzten graduak. Graduak euskaraz bermatuko ditugu eta beste hizkuntzei lekua egingo zaie, euskara zokoratu gabe.

Graduetako nahitaezko irakasgaiak ia euskaldunduta izanik, hautazko irakasgaietan jarriko du indarra IV. Planak. Graduen hautazkotasuna egokitzeko, gradu bakoitzak dituen gutxieneko hautazko kredituak hartuko ditugu oinarritzat. Bi multzotan bereizi ditugu: batetik, gutxieneko hautazko kreditu-kopuru bera edo gutxiago duten graduak; eta, bestetik, gutxieneko hautazko kreditu kopurua baino gehiago eskaintzen duten graduak. Gutxieneko horretatik behera dauden graduetako ikastegiak estrategiak landu beharko dituzte hautazko ikasgai gehiago euskaraz eskaintzeko, eta Euskara Errektoreordetzarekin batera aztertu zein diren zailtasunak eta aukerak. Gutxieneko horretatik behera dauden graduak izango dira lehentasunezkoak, baina beste hainbat gradutan ere oraindik gutxiengotik gorako eskaintza handiagoa izan liteke, eta horietan eskaintza gehitzea ere izango du helburu planak. Kasu guztietan ikastegi eta gradu bakoitzera egokitutako estrategiak landu beharko dira.

Hautazkotasuna neurtzeko modu honen aurrekaria III. Planeko Graduen euskalduntze-maila izeneko adierazlea da, plan honetan soildu egin duguna, hautazkoen aukerari soilik begiratuta.

Medikuntzako graduak, berezkoak dituen ezaugarriengatik, jarraipen berezia eskatzen du. UPV/EHU-Osakidetzaren arteko hitzarmenean (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2009/01/0900103a.shtml>) zehazten dena kontuan izanik, UPV/EHUko zuzendaritza taldeak euskarazko eskaintza handitzen jarraitzeko proposamenak helaraziko dizkio bi erakundeetako ordezkariak osatutako batzorde mistoari.

Horri dagokionez, bigarren zikloaren ebaluaziorako helburuak zehazterakoan oso garrantzitsua da unibertsitate-ospitaletan ematen den irakaskuntzaren berezitasunak presente izatea:

- 1) Irakaskuntza ematen den ospitalean lanean dauden eta euskararen C1 maila duten mediku espezialista kopuruaren menpe dago euskaraz irakasteko irakasleen kontratazioa.
- 2) Irakasgai bakoitzaren atal espezifikoak emateko atal horretan espezialista den medikua kontratatzea beharrezkoa da. Ondorioz, irakasgaiak dituen atal espezifiko adina irakasle beharko dira irakasgaia emateko.
- 3) Irakasgaiaren praktika klinikoak emateko irakasgairako kontratatutako irakasle espezialistaz gain, ospitalean lanean dauden beste mediku espezialisten kolaborazioa beharrezkoa da. Kolaborazio hori Venia Docendi bidez aitortzen zaie.

Berezitasun nagusi horiek eta unibertsitate-ospitaleko irakaskuntza unitate bakoitzaren egungo egoera kontuan izanda (Basurto, Galdakao, Gurutzeta, Donostia, Txagorritxu) hobetzeko proposamenak egingo dira.

Bestalde, graduon euskaraz eskaintzen den irakaskuntzaren kalitatea bermatu behar da betiere, eta azken urteotako ibilbideak geroz eta langa altuagoa utzi du honi dagokionez. Plan honen indarraldian euskarazko taldeen tamainei arreta ipini behar zaie; hainbat ikasgaitan, euskarazko taldeak handiak izan ohi dira, horrek lotuta dakarren kalitate-galera eta irakaslearentzako lan-kargarekin. Aztertu beharko den arazoa da hau, euskarazko matrikulazioaren arrakastarekin lotuta datorrena.

Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzari dagokionez, master ofizialetan euskaraz eskaintako ECTS kredituen ehunekoak gora egin du, eta epealdi honetan indar eta arreta berezia jarri nahi da gaitasun-masterretan. Izan ere, horiek dira profesionalki aurrera egiteko beharrezkoak diren ikasketak. Berezko ikasketak ere ez dira alde batera utziko eta euskarazko eskaintza gaur egun zein den aztertu nahi da handitzeko aukerak aztertzeke. Master Amaierako Lanak euskaraz egiteko laguntza eskaintzen jarraituko da, ikerketa eta ezagutza euskaraz zabaltzeko aukera ona baita.

Era berean, biztanleen profil soziolinguistika aldatuz doa, adinean gora doazen euskaldun alfabetatu gehiago daude. Horrek ekarri du Esperientzia Geletan gero eta euskaldun gehiagok parte hartzea, eta une honetan ase ezin ditugun euskaraz ikasteko eskaerak egotea. Plan honen indarraldian Esperientzia Geletan euskarazko eskaintza garatzeko estrategiak landuko dira hiru campusetan.

Aldi berean, euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko egitasmo eta plangintzekin aurrera egingo dugu. Irakasleen etengabeko prestakuntza (EHP-2020) izango da helburu hau erdiesteko lanabes nagusia. Formakuntza honetan irakasle eta ikertzaileei prestakuntza eta baliabideak eskaintzen zaizkie haien sortutako irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatzeko gai izan daitezen. Horrekin batera, corpus linguistikoa garatzeko egin den plangintza sendoari esker euskarazko corpus horiek eta sortuz joango direnak eskuragarri jarri nahi dira euskarri digitalean, erregistro akademikoa finkatuz eta bateratuz joan dadin.

### **Helburuak**

- 1.1 Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.**
- 1.2 Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.**
- 1.3 Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.**

### **Helburuak eta ekintzak**

- 1.1 Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.**
  - 1.1.1 Irakasleen etengabeko prestakuntza linguistikorako formazio-moduluak eta aholkularitza-zerbitzua eskaini (EHP-2020 egokitua) eta emaitzen jarraipena egin.
  - 1.1.2 Irakas-materialen eta ikasliburuen sorkuntzarako eta itzulpenetarako plangintzak egin eta gauzatu.
  - 1.1.3 Euskarazko corpusak eta sortzen diren edukien terminologia eskuragarri jarri euskarri digitalean.
  - 1.1.4 Irakasleen eta euskaraz ikasten ari diren ikasleen komunikazio-gaitasuna hobetzeko proiektuak sustatu.
- 1.2 Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.**
  - 1.2.1 Masterretan euskarazko eskaintza sustatzeko estrategiak landu.
  - 1.2.2 Master amaierako lanak euskaraz egitea sustatu.
  - 1.2.3 Berezko ikasketetako euskarazko eskaintza zein den aztertu, handitzeko aukerak identifikatzeko.
  - 1.2.4 Esperientzia Geletako ikasleek euskaraz ikas dezaten estrategiak landu eta euskarazko eskaintza handitu.
- 1.3 Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.**
  - 1.3.1. Graduan euskarazko eskaintza osoa ez duten ikastegiek osatzeko plangintza egin (ikus I.eta II. eranskinak).
  - 1.3.2. Praktika klinikoetan euskarazko eskaintza handitu Osakidetzarekin lankidetzan.
  - 1.3.3. Ikastegiek euskarazko lerroetan matrikulazioa sustatzeko estrategiak landu.
  - 1.3.4. Errektoreordetzak ikastegiekin lankidetzan, EAEtik kanpoko ikasle euskaldunak erakartzeko ekimenak burutu.
  - 1.3.5. Ikastegiek hautazko irakasgaietan euskararen presentzia handitzeko estrategiak landu eta partekatu.
  - 1.3.6. Graduko ikasleei kanpo-praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dieten enpresa eta erakundeen datu-basea elikatu eta ezagutarazi.
  - 1.3.7. Ikastegiek GRALak euskaraz egitea sustatu eta jarraipena egin.

## 2. IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

UPV/EHU ikerketa erakundea da, irakaskuntzaz gaindi ikerketan eta zientziaren eta teknologiaren garapenean diharduena. Unibertsitatearen estatutuek diotenez, euskararen eta euskal kulturaren ikerkuntza sustatuko du, eta bultzatuko du bai zientzia bai zientziaren zabalkundea, euskaraz. UPV/EHUren helburu estrategikoa da euskararen erabileraren normalizazioan eta Euskal Herriko garapen soziokulturalean daukan lidergoa areagotzea. Unibertsitateko Estatuetako hainbat artikulutan azpimarratzen den bezala, euskararen normalizazioak, batetik, eta euskara unibertsitateko jardun guztietara zabaltzeko beharrak, bestetik, euskaraz egindako ikerketa garatzeko betekizuna dakarte.

Gaur egungo goi-mailako ikerketa eta ezagutzaren sorkuntza eleaniztuna da, eta ingelesa nagusitzen da. Batetik, munduan sortutako ezagutza ahalik eta osoena jasotzeko, eta, bestetik, norberaren ekarpenak komunitate zientifiko ahalik eta zabalenari transmititzeko ia nahitaezkoa da globalki partekatzen den hizkuntza batean jardutea. Haatik, lan inguru eleaniztun honen kide izateak ez luke euskararen kaltetan izan behar, eta horretarako UPV/EHUk bereziki sustatzen du ikerketa eta ikerketaren zabalkundea euskaraz.

Ikerketari dagokionez, euskaraz egindako doktorego-tesiak sustatu eta saritzen ditugu, horiexek direlako euskara zientifiko akademikorako zutabe sendoenak. Azken urteotan egindako ahaleginen fruitua dira azken lau ikasturteetan adibidez UPV/EHU n euskaraz burutu diren 256 doktorego-tesiak, erditik gora nazioartekoak direnak. Nazioarteko doktorego-tesiak euskaraz eginez etorkizuneko unibertsitateko irakasle-ikertzaile eleaniztunak trebatzen dira, irakaskuntzarako eta ikerkuntzarako materiala sortzen da, euskararen corpus zientifiko-akademikoa garatzen da eta hizkuntzaren prestigioari bultzada handia ematen zaio.

Ezagutzaren gizarteratzean, ikerketaren zabalkundean ere, UPV/EHUk aspalditik egiten ditu funtsezko lanak eta akordioak. Bai bere dituen katedretatik zein inguruko erakundeekin sinatutako hitzarmenen eta egindako elkarlanaren bitartez, UPV/EHU dugu ikerketaren sortzean eta zabalkundean lidergoa daukan erakundea gaur egun euskal munduan. Horrela, euskarazko erregistro akademikoa landuz eta euskarazko aldizkari eta lan akademikoak bultzatuz (euskaraz sortutakoak eta itzulitakoak) euskararen corpus terminologikoa finkatzeko bidean urrats esanguratsuak emango ditugu.

### **Helburuak**

- 2.1. Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu.**
- 2.2. Euskarazko aldizkari akademikoen eta bildumen kalitatea hobetu eta zabalkundea egin.**
- 2.3. Euskaraz ikertzeko, datu, baliabide eta zerbitzuak hobetu eta zabalkundea egin.**



### **Helburuak eta ekintzak**

#### **2.1. Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu.**

- 2.1.1. Doktorego-tesiak euskaraz egiteko beka-deialdia egin.
- 2.1.2. Doktorego-tesia euskaraz egiten ari diren ikertzaileei hizkuntza-baliabideak eskaini (EHP-2020 egokitua).
- 2.1.3. Doktorego-tesien defentsarako interpretazio-zerbitzuak eskaintzen jarraitu.
- 2.1.4. Euskaraz egindako doktore-tesiak saritu.

#### **2.2. Euskarazko aldizkari akademikoen eta bildumen kalitatea hobetu eta zabalkundea egin.**

- 2.2.1. Euskarazko aldizkari akademikoek eta bildumek bete beharreko kalitate-irizpideak zehaztu eta irizpide horiek betetzen dituzten aldizkarien zerrenda egin.
- 2.2.2. Euskaraz argitaratzen diren aldizkari akademikoei Latindex katalogoaren irizpideak bete ditzaten laguntza eskaini.
- 2.2.3. Euskaraz argitaratzen diren bildumei edizio akademikoaren kalitatearen zigilua (CEA-APQ) lor dezaten laguntza eskaini.

#### **2.3. Euskaraz ikertzeko, datu, baliabide eta zerbitzuak hobetu eta zabalkundea egin.**

- 2.3.1. Euskarari buruzko ikerketa gizarteratzeko ahalegin berezia egin.
- 2.3.2. Euskarari buruzko ikerketa CLARIAH europar azpiegituran txertatu.
- 2.3.3. Euskarari buruzko diziplinarteko ikerketa bultzatu.

### 3. KULTURA ETA GIZARTEA

UPV/EHU euskal gizarteko erakunde erreferentziala da, euskarazko materiala sortzen eta terminologia estandarizatzen. UPV/EHUK ekarpen handia egin du alor honetan eta aitzindaria izan da. Bide honetan, euskararen normalizazioan diharduten eragileekin elkarlana ezinbestekoa izan da, bai ikerketa eta ezagutza euskaraz zabaltzeko, bai eta gizartean sortu diren ekimenak bultzatzeko orduan ere.

Jardun akademikoaz gaindi, unibertsitateak euskarazko eskaintza kultural oparoa eskaintzen du, bat eginez Eusko Jaurlaritzak 2024an onartutako **AROA: Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoan** egiten den hausnarketarekin: hezkuntzaren bidez euskara ezagutu eta erabiltzen dena, jardun akademikotik kanpoko ekosisteman erabiltzen jarraitzeko aukerak ematea ezinbestekoa da.

Era berean, unibertsitateak ere eredu izan behar du bere jardunean euskara erabiltzerakoan. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak abian duen Bikain Ziurtagiriaren ibilbidea funtsezkoa iruditzen zaigu administrazioaren jardunean eta kudeaketan euskara txertatzeko. Azken urteetan hainbat ikastegik eta zerbitzuz lortu dute ziurtagiria, eta bide horretan urrats garrantzitsuak eman nahi ditugu. Era berean, ziurtagiria prozesu dinamikoa eta malgua denez, aitortza lortu ondoren ere, urtez urte euskararen gaineko gogoeta egitea bultzatu nahi dugu. Bestalde, ziurtagiriaren prozesura bertara aurkeztu ez arren, Bikain ziurtagiriak eskaintzen dituen tresnak erabilgarriak izan daitezke ikastegietako euskara batzordeek bertako hizkuntzen egoeraz hausnarketa egin dezaten. Horretara guztirako, ikastegi eta zerbitzu/atalek Euskara Errektoreordetzaren laguntza eta aholkularitza izango dute.

Hala ere, Bikain Ziurtagiriaz gain, UPV/EHU administrazio publikoaren parte den heinean, hizkuntzen erabilerarako jarraibideak betearazteko bideak proposatu eta euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzeko beharrezko ekimenak gauzatu beharko ditu. Horietaz gain, IV. Plan Gidari honetan leku berezia eskaini nahi diegu, euskaraz lan egiteko lanabes digitalei (hizkuntza-teknologien eta adimen artifizialaren laguntzaz sortutako tresnak, batetik; eta softwareak eta aplikazioak, bestetik) eta indarrean dauden kontratu nagusietako hizkuntza-klausulei.

Sarreran aipatu den moduan, 2024ko urte-hasieran aurreikusita dago Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat onartuko duela sektore publiko osoari eragingo diona. Plan Gidari honetako ekimenak proposatzeko orduan aintzat hartu ditugu dekretuaren zirriborroan aipatzen diren alderdi batzuk; hala ere, behin onartutakoan aztertu beharko da egokitzapenen bat egin behar den.

### **Helburuak**

- 3.1. Unibertsitatearen euskararen erreferentzialtasuna indartu gizartean.**
- 3.2. Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.**
- 3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.**

### **Helburuak eta ekintzak**

#### **3.1. Unibertsitatearen euskararen erreferentzialtasuna indartu gizartean.**

- 3.1.1. Lankidetzeta-hitzarmenak eta proiektuak babestu euskara sustatzeko.
- 3.1.2. Doktore eta aditu euskaldunen datu-basea elikatu eta ezagutarazi.
- 3.1.3. Euskarazko kultur eskaintza komunitateari eta gizarteari eskaini.
- 3.1.4. UPV/EHUko ikasleen euskarazko formakuntza eredugarria izateko estrategiak garatu.

#### **3.2. Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.**

- 3.2.1. Ikastegiei eta zerbitzu-atalek Bikain ziurtagiria lantzen hasteko, beren euskara batzordea edo talde eragilea aktibatu.
- 3.2.2. Ikastegiei eta zerbitzu-atalek Bikain ziurtagiriaren ibilbidean parte hartzeko plangintza egin.
- 3.2.3. Euskara errektoreordetzatik Bikain ziurtagiria lortzeko laguntza eskaini ikastegiei eta zerbitzu-atalei.
- 3.2.4. Bikain ziurtagiria lortu ondoren, ikastegi eta zerbitzuek ebaluazioan proposatutako hobekuntzak gauzatzeko neurriak hartu.
- 3.2.5. Bikain ziurtagirian mailaren bat lortu duten ikastegiei eta zerbitzu-atalei egindako ahalegina aitortu.

#### **3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.**

- 3.3.1. Euskara errektoreordetzak hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak eguneratu eta esparru digitalera egokitu eta urtero zabalkundea egin.
- 3.3.2. Ikastegi eta zerbitzu guztietan euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzeko estrategiak landu.
- 3.3.3. Baldintza egokiak dituzten ikastegi eta zerbitzu-ataletan euskara lan-hizkuntza bihurtu.
- 3.3.4. Unibertsitateak erosi edo kontratatzen dituen aplikazio informatikoak euskaraz egotea bermatu.
- 3.3.5. Digitalizazioaz arduratzen den zerbitzuak euskararen erabilera sustatzeko lanabes digitalen erabilera zabaltzeko eta adimen artifizialak eskaintzen dituen aukeren hausnarketa bultzatu.
- 3.3.6. Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzuak (EAZ) software korporatiboak euskaraz instalatzea.
- 3.3.7. Indarrean dauden kontratu nagusiak (aurrekontua eta eragin-eremuaren arabera) eta zerbitzuen azpikontratazioak identifikatu eta hizkuntza-klausulak

aztertu (egokiak diren, jarraipena egiten den, praktika onak identifikatu...), horien betetze-mailaren jarraipena egin.

## 4. PERTSONAK

UPV/EHUk ahalegin handia egin du azken urteotan bere langileak euskalduntzeko eta haien euskara maila garatzen laguntzeko. Zenbat eta euskaldun gehiago egon gure unibertsitatean, orduan eta errazago egingo zaigu euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzea, eta, harago, lan-hizkuntza izatera ere heldu dadin. Helburu horretarako, jarduera akademikoko eta kudeaketako lanpostuak euskalduntzeko, alegia, TEKAZELen eta IRlen lanpostuak biak zaindu behar dira.

Datu orokorretan, TEKAZELen lanpostuen hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila % 82,3koa da. IRlei dagokienez, irakaskuntza-gaitasuna duten irakasle-plazen % 69,5 dira euskaldunak.

TEKAZELei dagokienez, lanpostuak euskalduntzeko bidean, bi noranzkotan lan egingo dugu: batetik, lanpostuen hizkuntza-eskakizun batzuk egokituko dira; eta, bestetik, derrigortasun-datarik gabeko lanpostu ez-bakante batzuei derrigortasun-data jarriko zaie.

Horretarako, EAeko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 dekretuak administrazio-atal elebidunak eta euskarazko administrazio-atalak aurreikusten ditu (15. atalean). Elebidunak beren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan betetzen dituztenak dira. Euskarazko administrazio-atalak beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituztenak dira. Dekretuaren 16. atalak honako administrazio-atalak sailkatzen ditu: jendaurreko atalak (zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuairekiko harremanetan oinarritzen denean), gizarte-mailako atalak (herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean), atal orokorrak (zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean) eta atal bereziak (bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak). Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea % 45etik % 70era bitartekoa denean (UPV/EHUren kasua), ondorengo bete behar da:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta era mailakatuan, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkana, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

Era berean, erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea % 45etik % 70era bitartekoa denean, aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak

jarriko dira izaera orokorreko ataletan, hau da, beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.

UPV/EHUko administrazio atal elebidunen eta euskarazko atalen proposamena IV. eranskinean dago jasota.

Hizkuntza-eskakizun mailak egokitzeko oinarritzat hartuko dugu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2017ko abenduan argitaratutako hizkuntza-eskakizunak esleitzeko dokumentua.

Dokumentu hori aintzat hartuta, gaur-gaurkoz UPV/EHUko lanpostuak egokitzeko irizpide hauek jarraituko ditugu:

a) Bigarren hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuen funtzioetan (monografia oinarri hartuta) txostenak idatzi beharra zehazten den kasuetan, lanpostu horiei hirugarren hizkuntza-eskakizuna esleituko diegu. Zehazki, bulego-buru eta arloko arduradun lanpostuetako dotazioetan jarriko dugu arreta.

b) Izendapen askeko lanpostua euskarazko administrazio-atalean edo administrazio-atal elebidunean kokatzen bada, bigarren hizkuntza-eskakizunetik hirugarrenera egokituko zaie.

a) eta b) irizpideak betetzen diren kasuan, egokitzapen hauek modu mailakatuan egingo dira: 2025, 2026 eta 2027 urteetan heren bat egokitu da urte bakoitzean.

Bestalde, hizkuntza-eskakizuna egokituko zaien lanpostuen derrigortasun-data ezartzeko orduan, aintzat hartu behar dugu unibertsitatean abian dela Enplegu Publikorako Eskaintza. Hura amaitu eta lanpostu guztiak finkatutakoan, a) eta b) irizpideak betetzen dituzten lanpostuak aztertuko dira, ondoko helburuekin:

- 1) Lanpostu baten jabeak lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa egiaztatua duenean, derrigortasun-data gainditua ezarriko zaio.
- 2) Lanpostua betetzen duen pertsonaren eta unitatearen ezaugarriak aztertuko dira eta horren arabera erabakiko da.
- 3) Aztertuko da behin-behineko lanpostuen % 20ri derrigortasun data jartzea eta menpeko lanpostuen % 10 jaistea.

Derrigortasun-datarik gabeko lanpostu ez-bakanteei dagokienez, ***Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia. VI. Plangintzaldia (2018-2022)*** izeneko dokumentuan oinarrituko gara, derrigortasun-datak aldatu edo berriak ezartzeko. Abian den Enplegu Publikorako Eskaintza amaitutakoan egingo dira beharrezko egokitzapenak.

Derrigortasun datak aldatu edo berriak ezartzeko orduan, lanpostuak honako hiru egoeraren batean egon beharko du:

1. **Jendaurreko lanpostua izatea.** Jendaurreko lanpostuak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, herritarrei lehenengo arreta ematen dieten lanpostuak. Eta bestaldetik, herritarrek artatzeko administrazioaren lehenengo lerroan ez badaude ere, herritarrekin harremanak dituzten lanpostuak.

2. **Harreman estrategikoak** dituen lanpostua izatea. Harreman estrategikoak dituzten lanpostuak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, herri-administrazioaren baitako hainbat ataletako langileekin lan-harremanak dituzten lanpostuak. Eta bestaldetik, beste herri-administrazioekin lan-harremanak dituzten lanpostuak. Hau da, herri-administrazioaren barruko harreman estrategikoak dituzten lanpostuez gain, beste herri-administrazioekin ahozko zein idatzizko komunikazioak dituzten lanpostuak ere estrategikoak izango dira.

3. **Atal elebidunak eta euskarazko atalak eratzeko edota trinkotzeko** beharrezkoa den lanpostua izatea.

Atal elebidunak eta euskarazko atalak eratzeko edota trinkotzeko beharrezkoa denean derrigortasun-data gainditua ezarriko zaie eta, gainerako kasuetan, derrigortasun-data gainditua 3 urtera ezarriko zaie.

Aurreko irizpideak betetzen dituzten lanpostuei derrigortasun-data ezarriko zaie, baldin eta:

- Lanpostu berria edo dagoeneko existitzen den lanpostu baten dotazioa bada, hutsetik sortutakoa izan nahiz amortizazio baten ondoren sortutakoa.
- Planak irauten duen bitartean, erretiroagatik hutsik geratu edo geratzeko bidean bada.
- Plazaren titularrak bere lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badu.

2023ko atal-administratiboen euskararen arabeko sailkapena IV. eranskinean jasota dago.

Azkenik, TEKAZELen eta IRIen euskara-maila hobetzeko programekin aurrera jarraituko dugu. TEKAZELen kasuan, euskara ikasteko liberazioak eta dirulaguntzak eskainiko zaizkie, bai lanorduetan bai lanorduz kanpo, eta IRIek, EPH2020 programaren bidez, irakasle bakoitzaren beharretara egokitutako euskara akademikoari buruzko formazioa jasoko dute.

### **Helburuak**

- 4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.**
- 4.2. Zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatu.**

### **Helburuak eta ekintzak**

#### **4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.**

- 4.1.1. Langile berriei (IRI eta TEKAZEL) euskalduntzeko aukeren berri eman.
- 4.1.2. Meritu lehiaketetan, langileen (TEKAZEL zein IRI) lanpostuetan ezarrita dagoen hizkuntza-eskakizunen irizpideen balorazioa egokitzeko bideak landu.
- 4.1.3. Euskara hizkuntza-eskakizuna daukaten lanpostuetarako lehiaketetan euskararen erabilera ezartzeko bideak aztertu.
- 4.1.4. Euskara-eskakizuna ez duten IRien euskara-ezagutzaren egoera ezagutu eta hobetzeko ekimenak bultzatu.
- 4.1.5. Irakasleen eta ikertzaileen etengabeko prestakuntza linguistikorako formazio-moduluak eta aholkularitza-zerbitzua eskaini eta jarraipena egin.
- 4.1.6. TEKAZELeko euskarazko liberazioak eta ikastaroak eskatzeko deialdiak gauzatu eta zabalkundea egin.
- 4.1.7. TEKAZELeko lanpostuen hizkuntza-eskakizunen mailak egokitu irizpideen arabera.
- 4.1.8. TEKAZELeko lanpostuei derrigortasun-datak esleitu ezarritako irizpideen arabera.
- 4.1.9. TEKAZLei euskaraz eskainitako formakuntza gaztelaniazkoaren bezain bestekoa izatea.

#### **4.2. Zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatu.**

- 4.2.1. UPV/EHUko kideen artean berbalagun moduko ekimenak bultzatu.
- 4.2.2. Euskararen erabilera sustatzeko deialdia antolatu eta zabaldu.
- 4.2.3. Euskararen Egunaren atarian aitortza-ekitaldia antolatu.
- 4.2.4. UPV/EHUk jasotzen dituen euskararen erabilerari buruzko salaketak kudeatu, dagozkien ikastegi eta zerbitzu-ataleko arduradunen erantzuna jaso ondoren.



#### **4. PLANAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA FINANTZIAZIOA**

Edozein planek proposatzen duena ebaluatzeko eta jarraipena egiteko bidea behar du. Hortaz, IV. Euskara Planaren jarraipenerako hainbat adierazle proposatzen ditugu. Horietaz gain, 86/1997 Dekretuaren 19. artikuluan aipatzen dena jarraituz, plangintza aldiaren bigarren urtea betetakoan, ebaluazio-txostena egingo da. Txosten horrek helburu izango du antzemandako hutsune eta zailtasunen ondorioz beharrezkoak diren berrazterketak egitea.

Bestalde, unibertsitatea erakunde publikoa den heinean, euskararen normalizazioaren ikuspegitik euskal botere publikoek ezartzen dizkioten betekizunak bete beharko dituzte. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak abian du sektore publikoan euskararen erabilera eta presentzia arautuko duen dekretu berria (txosten hau idazten den datan onartu gabe dago); hortaz, dekretu hura onartutakoan, dagozkion egokitzapenak egin beharko dira IV. Plan Gidari honetan eta bertan proposatzen diren ebaluaziorako tresnak eta bideak bere egin beharko ditu.

Era berean, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak IV. Plan honetan zehaztutako helburu eta ekintzetan oinarritutako urteroko jarduera-plana prestatuko du. Plan hori UPV/EHUko Euskara Batzordearekin, campusetako euskara-zuzendariekin eta ikastegietako euskara-arduradunekin koordinazioan egingo da.

Bestalde, plan honetan jasotako ekimenak garatu ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateak bere aurrekontutik bideratuko ditu beharko diren baliabideak. Baliabide horiek bi iturri nagusitatik bideratuko dira 2023 eta 2027 urteen artean: UPV/EHUko ohiko aurrekontutik eta kontratu-programen bidez.

## 5. EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK

ZENB.	ARDATZA	ADIERAZLEAREN IZENBURUA	2022	HELBURU A
1	I	Master ofizialetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa.	% 14,1	% 19
2	I	Euskaraz defendatzen diren Master Amaierako Lanen ehunekoa	% 29	% 33
3	I	Graduan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa	% 94,4	% 96
4	II	Euskaraz egindako doktorego-tesien kopurua.	60	70
5	II	Euskaraz egindakoen artean nazioartekoak diren doktorego-tesien ehunekoa	% 50	% 60
6	II	UPV/EHUk euskaraz argitaratutako liburuen kopurua.	70	70
7	II	UPV/EHUko ikertzaileek euskaraz argitaratutako zientzia-artikuluen kopurua (Inguma)	156	200
8	III	Bikain ziurtagiriaren prozesuan parte hartu duten edo maila bat aurrera egin duten ikastegi edo zerbitzu/atalen kopurua	10	33
9	III	Euskal ingurune sozioekonomiko eta kulturalaren lankidetzaz euskaraz egindako ekimenen kopurua eta horietan izandako parte hartzaileen kopurua.	115 ekimen 14.691 parte- hartzaile	120 ekimen 20.000 parte- hartzaile
10	IV	TEKAZELeko lanpostuen hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila.	% 82	% 85
11	IV	TEKAZELeko lanpostuen derrigortasun-daten ezartze-maila.	% 75	% 78
12	IV	3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten TEKAZELeko langileen ehunekoa.	% 42	% 50
13	IV	Irakaskuntza-gaitasuna duten irakasle-plaza elebidunen ehunekoa.	% 66	% 70
14	IV	Euskara eskakizunik ez duten IRLen euskara-ezagutza jasotzeko modua sortu eta jarraipena egin.	Ez dago	Eginda
15	IV	Ikastegi eta zerbitzuetan telefonoz nahiz aurrez aurre harremana euskaraz eskatu eta ematen den ehunekoa	% 69	% 75

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

---

16	IV	Ohiko software eta aplikazioen euskarazko erabilera	GAUR: % 39,90 Microsoft Office: % 3,30	GAUR: % 45 Microsoft Office: % 5
----	----	---	--	--

---

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

Jarraian adierazle orokorren definizio-taula dago. Adierazle bakoitzaren datua noiz jaso den eta bakoitzaren kalkulurako zehaztapenak ageri dira, baita adierazle horren inguruan egin dugun hausnarketa.

ZENB	ADIERAZLEAREN IZENBURUA	KALKULUA	HAUSNARKETA
1	Master ofizialetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa	Master ofizialetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2022ko abenduaren 31koa da. Kalkulua: Master ofizialetan euskaraz eskaintzen diren ECTS kredituen kopurua / Master ofizialetako ikasketan guztien ECTS kredituen kopurua.	Kalkulu honetan ez ditugu aintzat hartuko MALak egiteko kredituak, ez baitakigu zein den eskaintza. Era berean, master ofizialetan hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) eta beste hizkuntzetan dauden kreditu-kopurua aztertuko dugu.
2	Euskaraz defendatzen diren Master Amaierako Lanen ehunekoa	Master Amaierako Lanetatik euskaraz zenbat egiten diren ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua: 2022ko abendua. Kalkulua: Euskaraz defendatzen diren Master Amaierako Lanen kopurua / Master Amaierako Lan guztiak	Kasu batzuetan, masterra gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egin arren, MALa euskaraz egiten da sarri. Horregatik adierazle honen eboluzioa zein den aztertu nahi dugu.
3	Graduan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa	Graduko ikasketetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Neurketatik salbuetsita daude I. Eranskinean jasota dauden Graduak. Hasierako datua 2022ko abenduaren 31koa da. Kalkulua: Graduan euskaraz eskaintzen diren ECTS kredituen kopurua / Graduko ikasketan guztien ECTS kredituen kopurua.	Kalkulu hau egiteko orduan aintzat hartuko dira: eskaintzen diren kredituak + praktika kurrikularrean egindako kredituak (gradu amaierako kredituak ez dira aintzat hartuko zaila baita jakitea zein den eskaintza). Bestalde, aztertu nahi dugu, hizkuntza-ofizialetan (euskara eta gaztelania) eskaintzen diren kredituak eta beste hizkuntzetan eskaintzen direnak. Adierazleetan horrela ez bada agertuko ere, hiru aldagaien jarraipena egitea proposatzen da. Adierazle hau zuzenean lotzen zaio Garapen Iraunkorreko Helburuetarako (GIH) proposatutakoari, alegia, Euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gaikuntza eleaniztuna.

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

ZENB	ADIERAZLEAREN IZENBURUA	KALKULUA	HAUSNARKETA
4	Euskaraz defendatutako doktorego-tesien kopurua.	UPV/EHU n euskaraz defendatutako doktorego-tesien kopurua neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua: 2022ko abenduaren 31. Kalkulua: Ikasturtean zehar euskaraz defendatutako doktorego-tesien kopurua.	Adierazle hau zuzenean lotzen zaio Garapen Iraunkorreko Helburuetarako (GIH) proposatutakoari, alegia, Euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gaikuntza eleaniztuna.
5	Euskaraz defendatutakoen artean nazioartekoak diren doktorego-tesien ehunekoa.	UPV/EHU n euskaraz defendatutako doktorego-tesien artean nazioartekoak izan diren doktorego-tesien ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua: 2022 abenduaren 31. Kalkulua: Ikasturtean zehar euskaraz defendatutakoen artean nazioartekoak izan diren doktorego-tesien kopurua / ikasturtean zehar euskaraz defendatutako doktorego-tesien kopurua.	
6	UPV/EHUk euskaraz argitaratutako liburuen kopurua.	UPV/EHUko argitalpen zerbitzuak argitaratutako euskarazko argitalpenen kopurua neurtzen du adierazle honek. Zehazki, UPV/EHUko argitalpen zerbitzuak euskara hutsean argitaratzen dituen unibertsitate testuen, bildumen, sailen, aldizkarien eta monografiaren aleak zenbatzen dira adierazle honetan. Hasierako datua 2022ko abenduaren 31koa da. Kalkulua: Urtean zehar UPV/EHUko argitalpen zerbitzuaren euskarazko argitalpenak.	ISBN eta ISSN duten argitalpenak hartuko dira aintzat.

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

ZENB	ADIERAZLEAREN IZENBURUA	KALKULUA	HAUSNARKETA
7	UPV/EHUko ikertzaileek euskaraz argitaratutako artikuluen kopurua (Inguma).	Urtean zehar UPV/EHUko ikertzaileek aldizkari zientifikoetan euskaraz argitaratutako artikuluen kopurua neurtzen du adierazle honek. Datuak Inguma datu-basetik erauziko dira. Hasierako datua 2022. urtekoa da. Kalkulua: Urtean zehar Inguma datu-basean jasota dauden aldizkari zientifikoetan UPV / EHUko ikertzaileek euskaraz argitaratutako artikuluen kopurua.	Urte bati dagokion datua emateko hurrengo urteko abendura arte itxaron beharko da; izan ere, euskaraz egindako produkzio zientifiko guztia Inguma datu-basean kargatzeko denbora behar da.
8	Bikain ziurtagirian maila bat aurrera egin duten ikastegi edo zerbitzu-atalen kopurua.	Bikain ziurtagiriaren mailaren bat lortu dutenak edo maila bat aurreratu dutenak hartuko dira aintzat adierazle honetan. Datua 2022koa da. Kalkulua: Bikain Ziurtagirian mailaren bat lortu duten edo aurrera egin duten ikastegi eta zerbitzu-atalak.	Ikus III. eranskinean Bikain eska dezaketen ikastegi eta zerbitzu-atalen zerrenda.
9	Euskal ingurune sozioekonomiko eta kulturalaren lankidetzaz euskaraz egindako ekitaldien kopurua eta horietan izandako parte hartzaileen kopurua.	Urtean zehar UPV/EHUk euskaraz egindako ekitaldiak hartuko dira aintza, hain zuzen ere, hauek antolatutakoak: EHUkultura orokorra, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusak, Iraunkortasunerako zuzendaritzak eta EHUgunek antolatutakoak. Hasierako datua 2022ko abenduaren 31koa da.	

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

ZENB	ADIERAZLEAREN IZENBURUA	KALKULUA	HAUSNARKETA
10	TEKAZELEko lanpostuen hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila.	TEKAZELEko lanpostuen zerrendan lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatuta duten lanpostuen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua: 2022ko abenduaren 31koa da. Kalkulua: Langileak lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten TEKAZELEko lanpostuen zerrendako lanpostuen kopurua / TEKAZELEko lanpostuen zerrendako lanpostu kopurua.	
11	TEKAZELEko lanpostuen derrigortasun-daten ezartze-maila.	TEKAZELEko lanpostuen zerrendan derrigortasun-data ezarrita duten lanpostuen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2022ko abenduaren 31koa da. Kalkulua: Derrigortasun-data ezarrita duten TEKAZELEko lanpostuen zerrendako lanpostuen kopurua / TEKAZELEko lanpostuen zerrendako lanpostu kopurua.	
12	3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten TEKAZELEko langileen ehunekoa.	Gutxienez 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten TEKAZELEko langileen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua: 2022ko abendua. Kalkulua: Gutxienez 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten TEKAZELEko langile-kopurua / TEKAZELEko langile-kopurua.	

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

ZENB	ADIERAZLEAREN IZENBURUA	KALKULUA	HAUSNARKETA
13	Irakaskuntza-gaitasuna duten irakasle-plaza elebidunen ehunekoa.	Irakaskuntza-gaitasuna eta euskararen betekizuna duten irakasle-plazen ehunekoa (%) neurtzen du adierazle honek. Hasierako datua 2022ko abendukoa da. Kalkulua: Irakaskuntza-gaitasuna eta euskararen betekizuna duten irakasle-plazen kopurua / irakaskuntza gaitasuna duten irakasle-plazen kopurua.	BIL / NOBIL kategoriatan sailkatzen diren irakasleen plazak hartuko dira aintzat adierazle honetan.
14	Euskara eskakizunik ez duten IRlen euskara-ezagutza jasotzeko modua sortu eta jarraipena egin.	Galdetegi bat zabalduko da euskara-eskakizunik ez duten IRlen artean.	Adierazle honekin jakin nahi dugu, euskara-eskakizunik ez duten IRlen euskara-maila zein den; alegia, NOBIL (irakasleak) kontratua dutenak eta ikertzaileak.
15	Ikastegi eta zerbitzuetako euskarazko arretaren ehunekoa.	Unibertsitateko ikastegi eta zerbitzuetako telefono bidezko eta aurrez aurreko arretan, EHUko pertsonalak euskara zenbat erabiltzen duen neurtu nahi du adierazle honek. Datu hau jaso dugu: euskaraz nahi izan dutenei zenbatean egin zaien euskaraz. Hasierako datua 2020koa da. Kalkulua: Berariazko neurketak.	Siadecok 2020an AZPko lanpostuetako hizkuntzaren erabileraren diagnostikoa egin zuen. Bertako datuak aintzat hartuta euskararen erabilera hau da: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Telefonoz lehen hitza: % 49</li> <li>• Aurrez aurre lehen hitza: % 42</li> <li>• Euskarazko zerbitzua euskaraz nahi izan dutenei: % 69 (telefonoz+aurrez aurre)</li> </ul>
16	Software eta aplikazioen erabilera euskaraz.	Unibertsitateko software eta aplikazio erabilienak neurtuko dira: GAUR, Office eta E-gela. Hasierako datua: 2023ko abendukoa da. Kalkulua: GAUR: 2023an GAUREn zabaldu ziren sesioetatik zenbat izan diren euskaraz. Microsoft Office: kontua izan eta hizkuntza zehaztuta dutenen artean, zenbatek duten euskara aukeratuta.	



**I. ERANSKINA:** Graduoko ikasketetan 2023-2024 ikasturteko nahitaezko irakasgaien eskaintza hizkuntza bakoitzean, campuska. Ikasketa Planak jasotako nahitaezko irakasgaien kredituekiko, hizkuntza bakoitzean dagoen eskaintza jaso da, kanpoan utzirik praktikak eta Gradu Amaierako Lanak.

**ARABA**

KODEA	PLANA	Euskaraz (%)	Gaztelaniaz (%)	Beste hizkuntzetan (%)
GADEII11/ GADEII10	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza	62,5	100	10,4
GDIMEL10	Ingeniaritza Mekanikoa eta Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza	100	100	15
GFARNU10	Farmazia eta Giza Nutrizioa eta Dietetika	100	100	2,6
GIMADE10	Ingeniaritza Mekanikoa eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza	100	100	15,5
GADEMP10	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua (EAZ)	100	100	20
GCTALI10	Elikagaien Zientzia eta Teknologia	100	100	0
GDEPOR10	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak	100	100	0
GFARMA10	Farmazia	100	100	3,8
GHARTE10	Artearen Historia	100	100	6,5
GHISTO10	Historia	100	100	25,8
GIAUTO10	Automobilgintzaren Ingeniaritza	100	100	7,1
GIIGSI10	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza	16,7	100	3,3
GINFAN10	Haur Hezkuntza	100	0	0
GMECAN10	Ingeniaritza Mekanikoa	100	100	17,6
GNUTRI10	Giza Nutrizioa eta Dietetika	100	100	0
GPRIMA10	Lehen Hezkuntza	96,3	0	3,8
GTRABA10	Gizarte Langintzako	100	100	3,7
GIEIAU10	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	70,6	100	8,8

**GIPUZKOA**

<b>KODEA</b>	<b>PLANA</b>	<b>Euskaraz (%)</b>	<b>Gaztelaniaz (%)</b>	<b>Beste hizkuntzetan (%)</b>
GADEDE20	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbidea	100	100	6,7
GBIZAT20	Ingeniaritza Zibila eta Arkitektura Teknikokoa	100	100	0
GBLHHH20	Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza	90,9	9,1	0
GDIMEL20	Ingeniaritza Mekanikoa eta Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza	93,6	93,6	13,8
GADEMP20	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua (EAZ)	100	100	16,7
GANTRO20	Gizarte Antropologia	100	100	10
GARQUI21	Arkitekturaren Oinarriak	100	100	49,4
GCIVIL20	Ingeniaritza Zibila	100	100	0
GCRIMI20	Kriminologia	96,6	100	3,4
GDEREC20	Zuzenbidea	100	100	0
GEDIFI20	Arkitektura Teknikoa	100	100	0
GENFER20	Erizaintza	100	100	0
GESOCI20	Gizarte Hezkuntza	100	100	3,8
GFILOS20	Filosofia	100	100	20
GIARTI20	Adimen Artifizialeko gradua	100	100	13,3
GIELEC20	Ingeniaritza Elektrikoa	100	100	13,2
GINFAN20	Haur Hezkuntza	84,4	15,6	3,8
GINFOR20	Ingeniaritza Informatika	100	100	36,4
GINPROa2	Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako Ingeniaritza	58,3	100	9
GMECAN20	Ingeniaritza Mekanikoa	100	100	13,2
GPEDAG20	Pedagogia	100	100	3,8
GPRIMA20	Lehen Hezkuntza	81,3	15	11,3
GPSICO20	Psikologia	100	100	10,3
GQUIMI20	Kimika	100	100	16,7
GIEIAU20	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	100	100	19,1

**BIZKAIA**

KODEA	PLANA	Euskara z (%)	Gaztelaniaz (%)	Beste hizkuntzetan (%)
GADECO30	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Ekonomia	0	0	100
GADEDE30	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea	100	100	46,7
GADEMP30	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza	100	100	100
GDFIIE30	Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoa	100	100	11,6
GGEREL30	Negoioen Kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideak	89,5	89,5	20,2
GBIOLO30	Biologia	100	100	30,4
GBIOQU30	Biokimika eta Biologia Molekularra	100	100	6,3
GBIOTE30	Bioteknologia	100	100	21,9
GCIVIL30	Ingeniaritza Zibila	100	100	0
GCOMER30	Negoioen Kudeaketa	90	90	33,3
GCOMUN31	Ikus-Entzunezko Komunikazioa	100	100	36,7
GCONSE30	Kultur Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzea	100	100	0
GCREAC30	Sorkuntza eta Diseinua	100	100	0
GECONO30	Ekonomia	100	100	92,9
GELECT30	Ingeniaritza Elektronikoa	100	100	16
GENART30	Artea	100	100	3,3
GENFER30	Erizaintza	100	100	9,7
GESOCI30	Gizarte Hezkuntza	100	100	0
GFISCA30	Fiskalitate eta Administrazio Publikoa	100	100	63,3
GFISIC30	Fisika	100	100	16,1
GFISIT30	Fisioterapia	100	100	0
GGEOLO30	Geologia	100	100	4,5
GIIGSI30	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza	100	100	3,3
GINELE30	Ingeniaritza Elektrikoa	100	100	38,2
GINFAN30	Haur Hezkuntza	100	30	0
GINORG30	Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza	88,9	100	27,8
GINQUI30	Ingeniaritza Kimikoa	100	100	21,1
GITECI30	Industria Teknologiararen Ingeniaritza	100	100	70
GMARKE30	Marketina	100	100	68,6
GMATEM31	Matematika	100	100	40
GMECAN30	Ingeniaritza Mekanikoa	100	100	41,2
GMEDIC30/ 31	Medikuntza <sup>5</sup>	100	100	11,3
GODONT30	Odontologia	100	100	0
GPERIO31	Kazetaritza	100	100	33,3

<sup>5</sup> Medikuntzako ehunekoa Leioako Fakultatean eskaintzen diren ECTS kredituei dagokio.

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

GPOLIT31	Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa	100	100	32,3
GPRIMA30	Lehen Hezkuntza	96,3	0	7,5
GPUBLI31	Publizitatea eta Harreman Publikoak	100	100	23,3
GQUIMI30	Kimika	100	100	23,3
GRELAB30	Lan Harreman eta Giza Baliabideak	100	100	14,5
GSOCIO31	Soziologia	100	100	22,6
GTELEC30	Telekomunikazioko Teknologiko Ingeniaritza	100	100	18,8
GIEIAU30	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	100	100	44,1

Eranskin honetan ez dira kontuan hartu gradu batzuk arrazoi hauengatik:

- Hizkuntza aztergai duten graduak: Ingeles Ikasketetako Gradua, Euskal Ikasketetako Gradua, Filologiako Gradua eta Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua.
- Taldea osatzeko ikasle gutxiegi dituzten graduak: Itsasketako Gradua, Nautika eta Itsas Garraioko Gradua, Ingurumen Ingeniaritzako Gradua, Meatzaritza eta Energia Teknogiaren Ingeniaritzako Gradua, Geografiako Gradua eta Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua
- Gradu hirueledunak: Lehen Hezkuntzako Gradu Hirueleduna.

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

**II. ERANSKINA:** Euskarazko hautazkotasuna graduko ikasketetan 2023-2024 ikasturtean.

Gradu bakoitzak ikasketa-planean ezartzen du gutxieneko hautazko ECTS kredituen kopuru bat. Taula honek ehunekotan adierazten du gradu bakoitzak zenbatean betetzen duen gutxieneko hautazko ECTS kredituen kopuru hori. Beraz, % 100etik behera dauden graduek ez dute bermatzen gutxieneko hautazkotasuna euskaraz; aldiz, % 100etik gora dauden graduek bermatu egiten dute gutxieneko hautazkotasun hori.

**ARABA**

KODEA	PLANA	Euskarazko hautazkotasuna (%) 2023-2024
GADEMP10	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (EAZ)	25,0
GCAMBI11	Ingurumen Zientziak	60,0
GCTALI10	Elikagaien Zientzia eta Teknologia	66,7
GDEPOR10	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak	190,6
GFARMA10	Farmazia	140,0
GHARTE10	Artearen Historia	125,0
GHISTO10	Historia	150,0
GIAUTO10	Automobilgintzaren Ingeniaritza	66,7
GIIGSI10	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza	25,0
GINFAN10	Haur Hezkuntza	280,0
GMECAN10	Ingeniaritza Mekanikoa	50,0
GNUTRI10	Giza Nutrizioa eta Dietetika	133,3
GPRIMA10	Lehen Hezkuntza (Euskara)	280,0
GTRABA10	Gizarte Langintza	183,3

**GIPUZKOA**

KODEA	PLANA	Euskarazko hautazkotasuna (%) 2023-2024
GADEMP20	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (EAZ)	212,5
GANTRO20	Gizarte Antropologia	100,0
GARQUI21	Arkitekturaren Oinarriak	206,7
GCIVIL20	Ingeniaritza Zibila	66,7
GCRIMI20	Kriminologia	70,8
GDEREC20	Zuzenbidea	166,7
GEDIFI20	Arkitektura Teknikoa	44,4
GENFER20	Erizaintza	166,7

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

GESOCI20	Gizarte Hezkuntza	180,0
GFILOS20	Filosofia	87,5
GIARTI20	Adimen Artifiziala	37,5
GIELEC20	Ingeniaritza Elektrikoa	150,0
GINFAN20	Haur Hezkuntza (Euskara)	360,0
GINFOR20	Ingeniaritza Informatika	206,3
GINPROa2	Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako Ingeniaritza	66,7
GMECAN20	Ingeniaritza Mekanikoa	75,0
GPEDAG20	Pedagogia	157,1
GPRIMA20	Lehen Hezkuntza (Euskara)	360,0
GPSICO20	Psikologia	228,1

**BIZKAIA**

KODEA	PLANA	Euskarazko hautazkotasuna (%) 2023-2024
GADEMP30	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (EAZ)	162,5
GBIOLO30	Biologia	182,5
GBIOQU30	Biokimika eta Biologia Molekularra	108,3
GBIOTE30	Bioteknologia	120,8
GCIVIL30	Ingeniaritza Zibila	66,7
GCOMER30	Negozioen Kudeaketa	160,0
GCOMUN31	Ikus-Entzunezko Komunikazioa	250,0
GCONSE30	Kultur Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzea	37,5
GCREAC30	Sorkuntza eta Diseinua	114,3
GECONO30	Ekonomia	70,0
GELECT30	Ingeniaritza Elektronikoa	114,3
GENART30	Artea	214,3
GENFER30	Erizaintza	158,3
GESOCI30	Gizarte Hezkuntza	140,0
GFISCA30	Fiskalitate eta Administrazio Publikoa	25,0
GFISIC30	Fisika	157,1
GFISIT30	Fisioterapia	140,0
GGEOLO30	Geologia	80,0
GIIGSI30	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza	125,0
GINELE30	Ingeniaritza Elektrikoa	50,0
GINFAN30	Haur Hezkuntza	380,0
GINORG30	Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza	166,7
GINQUI30	Ingeniaritza Kimikoa	116,7
GITECI30	Industria Teknologiaren Ingeniaritza	275,0
GMARKE30	Marketina	66,7
GMATEM31	Matematika	75,0
GMECAN30	Ingeniaritza Mekanikoa	50,0

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

GMEDIC30/31	Medikuntza	266,7
GODONT30	Odontologia	66,7
GPERIO31	Kazetaritza	287,5
GPOLIT31	Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa	200,0
GPRIMA30	Lehen Hezkuntza (Euskara)	360,0
GPUBLI31	Publizitatea eta Harreman Publikoak	287,5
GQUIMI30	Kimika	185,7
GRELAB30	Lan Harreman eta Giza Baliabideak	162,5
GSOCIO31	Soziologia	200,0
GTELEC30	Telekomunikazioko Teknologiako Ingeniaritza	90,0

Eranskin honetan ez dira kontuan hartu gradu batzuk arrazoi hauengatik:

- Hizkuntza aztergai duten graduak: Ingeles Ikasketetako Gradua, Euskal Ikasketetako Gradua, Filologiako Gradua eta Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua.
- Taldea osatzeko ikasle gutxiegi dituzten graduak: Itsasketako Gradua, Nautika eta Itsas Garraioko Gradua, Ingurumen Ingeniaritzako Gradua, Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua, Geografiako Gradua eta Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua
- Gradu hirueledunak: Lehen Hezkuntzako Gradu Hirueleduna.
- Gradu bikoitzak: euren eskaintzan ia ez dagoelako hautazko krediturik.

**III. eranskina: Bikain Ziurtagiria.**

Bikain ziurtagiria tresna egokia da, ikastegi, zerbitzu eta atalek euskararen erabilera susta dezaten. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen aitortza-sistema hau eta 97/2023 Dekretuak arautzen du. Plan honetan Bikain ziurtagiria baliatu nahi dugu euskararen erabilera sustatzeko. Taula honetan Bikain ziurtagirira aurkez daitezkeen UPV/EHUko ikastegi, zerbitzu eta atalak zerrendatzen ditugu. Horietako batzuk ziurtagiriren bat lortu dute eta taulan dagokion maila jasota dago.

Taula honetan jasotako atalak urtez urte eguneratu beharko dira, unibertsitatean gertatzen diren antolamendu-aldaketak aintzat hartuta.

		BIKAIN ZIURTAGIRIA
<b>IKASTEGIAK (19)</b>		<b>8</b>
ARKITEKTURAKO GET		
BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA		
GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA		Erdi-mailakoa
GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLA		
ARTE EDERREN FAKULTATEA		
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA		
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA		Erdi-mailakoa
ZUZENBIDE FAKULTATEA		
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA		Erdi-mailakoa (Gipuzkoako atala)
BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA		Goi-mailakoa
HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA		
HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA		Erdi-mailakoa
FARMAZIA FAKULTATEA		Erdi-mailakoa
INFORMATIKA-FAKULTATEA		Erdi-mailakoa
LETREN FAKULTATEA		
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA		
PSIKOLOGIA FAKULTATEA		
KIMIKA FAKULTATEA		Oinarrizkoa
LAN HARREMANEN ETA GIZARTE LANAREN FAKULTATEA		
<b>BIBLIOTEKAK</b>		<b>Bikain</b>
U081	ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	
U083	BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	
U082	GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	
U080	UNIBERTSITATEKO BIBLIOTEKA	
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>		
U030	GERENTZIA	
U000	ERREKTORETZA	
U001	IDAZKARI NAGUSIA	
U031	KONTABILITATEKO GERENTEORDETZA	ETA AURREKONTUETAKO
U041	ONDARE ETA KONTRATAZIO GERENTEORDETZA	
U032	LANGILERIAREN GERENTEORDETZA	



UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

321	TEKAZELen Zerbitzua	
322	IRIen Zerbitzua	
323	Nomina Zerbitzua	
325	Ikasketa, Planifikazio eta Formakuntzaren Gabinetea	
U033	PLANGINTZA ETA AZPIEGITUREN GERENTEORDETZA	
331	Arkitektura eta Obra Zerbitzua	
332	Prebentzio Zerbitzua	
U039	INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOEN TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA	
391	Gestioaren Informazio Zentrua	
392	Bezeroak	
393	Proiektuak	
394	Produkzioa	
395	Telefonozko Komunikazio Zerbitzua	
396	Seguridadea	
U002	ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA	Erdi-maila
U034	ARABAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	
U004	BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA	
U036	BIZKAIKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	
U003	GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA	Goi-maila
U035	GIPUZKOAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA	
U007	GARAPEN ZIENTIFIKO-SOZIALEKO ETA TRANSFERENTZIAKO ERREKTOREORDETZA	
U014	IKASLEEN ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN ERREKTOREORDETZA	
U006	EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDETZA	
61	Euskara Zerbitzua	
62	Hizkuntza normalkuntza eta planifikazioa	
63	Argitalpen Zerbitzua	
64	Mugikortasuna	
U009	GRADUKO ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA	
91	Akademia Antolakuntzako Gestiorako Aholkularia	
92	Hezkuntza Aholkularitza	
93	Graduko Zuzendaritza	
94	Kudeaketa Akademikoaren Zerbitzua	
96	Kalitatearen eta Ebaluazio Instituzionalaren Zerbitzua	
98	Berrikuntzako Arduradun Teknikoa	
U008	IKERKETAKO ERREKTOREORDETZA	
81	Etika Ikerketan (zuzendaritza)	
82	SGIKER	
84	Ikerkuntza Unitatea	
86	Nazioarteko I+G Bulegoko Zuzendaritza	
87	Ikerkuntzaren Gestio Ekonomikoa	
U010	IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ERREKTOREORDETZA	
101	Irakasleen Zuzendaritza	
102	IRIen plantilla kudeaketaren Zuzendaritza	

## UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

103	IRien plantilla planifikazioaren Zuzendaritza
U011	GRADUONDOKO ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA
111	Graduondoko Ikasketen Zerbitzua
112	Campus Birtuala
U023	ERALDAKETA DIGITALEKO ETA KOMUNIKAZIOKO ERREKTOREORDETZA
231	Irakaskuntzaren Ebaluazioaren Zerbitzua
232	Barne Kontrolaren Zerbitzua
233	Gestioaren Hobekuntza

#### **IV ERANSKINA: Administrazio-atalak**

86/1997 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, derrigortasun-datak esleitzerakoan kontuan hartu behar da lanpostuaren atalaren izaera. Horregatik, atal elebidunak eta euskarazko atalak eratzeko edo eraturakoak trinkotzeko, beharrezkoak diren lanpostuetan derrigortasun-data berriak ezartzeko aukera egongo da.

UPV/EHUan administrazio-atal elebidunak ezarriko dira jendaurreko ataletan, gizarte mailako ataletan eta atal orokorretan.

**Atal elebidunak** dira euren berezko eginkizunak bai euskaraz bai gaztelaniaz, bietan betetzen dituzten atalak.

Atal elebidun izendatuko dira honako baldintza hauek aldi berean betetzen dituztenak:

1. Atala osatzen duten lanpostuen % 60tik gorakoek derrigortasun-data ezarria izatea.
2. Atalburu den langileak dagokion hizkuntza-eskakizuna edo bat baxuago egiaztatua izatea eta atala osatzen duten gainerako langileen % 60tik gorakoek dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea.

Ikastegien kasuan, aurreko bi irizpideak betetzeaz gain, irakaskuntza-gaitasuna (CDB>0) duten irakasle-ikertzaile lanpostu elebidunen ehunekoa 50 baino handiagoa denean.

**Euskarazko atalak** dira bere eginkizunak batez ere euskaraz betetzen dituztenak.

Euskarazko atal izendatuko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

1. Atalburuak eta atala osatzen duten lanpostu guztien edo ia guztien (% 90etik gora) lanpostuetan derrigortasun-data ezarrita izatea.
2. Atalburu den langileak eta gainerako langile guztiek edo ia guztiek (% 90etik gora) diharduten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
3. Zeregin gehienak euskaraz betetzea, betiere herritarrek zerbitzu-hizkuntza hautatzeko duten eskubidea urratu gabe.

Hurrengo taulan adierazten dira IV. Euskararen Plan Gidari honen hasieran atal elebidun edo euskarazko atal izateko irizpideak betetzen dituzten administrazio-atalak. Urtero administrazio-atalak berrikusiko dira eta baldintzak betetzen dituzten administrazio-atalak atal elebidun edo euskarazko atal izendatuko dira hurrengo urteetako planifikazioari begira. Aurreikuspen bat egite aldera, proposamen bat jasotzen da hurrengo orrietan: batetik, gaur egun euskarazko atal edo atal elebidun gisa izendatzeko irizpideak betetzen dituztenak; eta, bestetik, 2024an euskarazko atal edo atal elebidun izendatzeko proposamen berriak.

**Euskarazko administrazio-atalak:**

	<b>Atal administratiboak</b>	<b>Lanpostu-kopurua</b>	<b>Derrigortasun-datak</b>	<b>HE egiaztatuta</b>	<b>Atalburu euskalduna</b>
U022	Aldezlea	2	% 100	% 100	Bai
U002	Arabako Campuseko Errektoreordetza	1	% 100	% 100	Bai
312	Aurrekontuetarako zerbitzua	2	% 100	% 100	Bai
202	Barne-kontrola	5	% 100	% 100	Bai
187	Berdintasunerako zuzendaritza / Berdintasuna	2	% 100	% 100	Bai
U383	Biofisika Unitatea	1	% 100	% 100	Bai
U083	Bizkaiko Campuseko Biblioteka	35	% 94,2	% 94,2	Bai
U004	Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	1	% 100	% 100	Bai
2	Errektorearen kabinetea	11	% 100	% 90,9	Bai
61	Euskara Zerbitzua	10	% 100	% 100	Bai
U003	Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	1	% 100	% 100	Bai
62	Hizkuntza normalkuntza eta plangintza	3	% 100	% 100	Bai
141	Ikasleen zuzendaritza	16	% 93,6	% 93,6	Bai
313	Kanpoko Funtsen Gestio eta Kontrolaren Zerbitzua	3	% 100	% 100	Bai
U278	Kriminologiaren Euskal Institutua	1	% 100	% 100	Bai
U270	Materialen Fisika Zentroa	1	% 100	% 100	Bai

**Euskarazko atal izateko baldintzak betetzen dituzten administrazio-atalak:**

	Atal administratiboak	Lanpostu-kopurua	Derrigortasun - datak	HE egiaztatuta	Atalburu euskaldun a	IRI plaza elebidunak
U240	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	15	% 93,3	% 100	Bai	% 71
U070	Gizarte Kontseilua	2	% 100	% 100	Bai	
C230	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea I	20	% 95	% 90	Bai	% 92
C254	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea II	11	%100	% 90,9	Bai	% 99
0183	Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua (SAE-HELAZ)	2	% 100	% 100	Bai	
C160	Lan Harremanen eta Gizarte Langintza Fakultatea (Vitoria-Gasteiz)	8	% 100	% 100	Bai	% 77,5
C252	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Donostiako irakasgunea)	11	%90,9	%90,9	Bai	% 90
U030	Gerentzia	2	% 100	% 100	Bai	
U130	Letren Fakultatea	25	% 91	% 91	Bai	% 56

**Euskarazko atal berriak izendatzeko proposamenak:**

	Atal administratiboak	Lanpostu - kopurua	Derrigortasun - datak	HE egiaztatuta	Atalburu euskaldun a	IRI plaza elebidunak
U354	Bilboko Hezkuntza Fakultatea	18	% 94,4	% 83,3	Bai	% 91,8
C364	Bilboko Ingeniaritza Eskola II	12	% 83,3	%83,3	Bai	% 69,8
U036	Bizkaiko Campuseko Gerenteordetza	38	% 86,8	% 89,4	Bai	
U035	Gipuzkoako Campuseko Gerenteordetza	43	% 83,7	% 88,3	Bai	
U082	Gipuzkoako Campuseko Biblioteka	31	% 87	% 87	Bai	
U323	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	34	% 85,2	% 88,2	Bai	% 61,7
C135	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Kirola)	10	% 90	% 80	Bai	% 76,7
C154	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Hezkuntza)	12	% 91,6	% 83,3	Bai	% 96,6

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

12	Idazkaritza nagusiko koordinazioa	20	% 80	% 90	Bai	
U226	Informatika Fakultatea	18	% 88,8	% 94,4	Bai	% 52,4
181	Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzua (KEIZ)	6	% 83,3	% 100	Bai	
C356	Lan Harremanen eta Gizarte Langintza Fakultatea (Leioa)	13	% 92,3	% 84,6	Bai	% 75,6
U231	Psikologia Fakultatea	14	% 85,7	% 100	Bai	% 66,2

**Administrazio-atal elebidunak**

	<b>Atal administratiboa</b>	<b>Lanpostu - kopurua</b>	<b>Derrigortasun - datak</b>	<b>HE egiaztatuta</b>	<b>Atalburu euskaldun a</b>	<b>IRI plaza elebidunak</b>
U034	Arabako Campuseko Gerenteordetza	29	% 79,3	% 86,2	Bai	
U081	Arabako Campuseko Biblioteka	25	% 72	% 64	Bai	
U320	Arte Ederren Fakultatea	32	% 62,5	% 68,7	Bai	% 71,8
321	AZPen zerbitzua	13	% 69,2	% 92,3	Bai	
325	Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabinetea	3	% 66,6	% 66,6	Bai	
C350	Bilboko Ingeniaritza Eskola, Portugalete	13	%69,2	%69,2	Bai	%63,6
C363	Bilboko Ingeniaritza Eskola II	28	% 67,8	% 96,4	Bai	% 70,8
184	Campus birtuala	5	% 80	% 80	Bai	
C351	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano)	15	% 80	% 66,6	Bai	% 56,6
71	Enpresarekiko harremanak	11	% 63,6	% 72,7	Bai	
U125	Farmazia Fakultatea	27	% 70,3	% 74	Bai	% 60,1
C263	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)	28	%78,6	%85,7	Bai	% 85

UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

C264	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)	10	% 80,0	% 70,0	Bai	% 72,5
186	Gizarte-erantzukizunerako zuzendaritza	5	%60	% 80	Bai	
322	IIPen zerbitzua	27	% 74	% 74	Bai	
182	Irakaslan Ebaluatze Zerbitzua	6	% 66,6	% 66,6	Bai	
C327	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapia)	58	% 75,8	% 82,7	Bai	% 90,4
201	Mugikortasunerako zuzendaritza	16	% 75	% 87,5	Bai	
323	Nominetako zerbitzua	11	% 80	% 80	Bai	
411	Ondare Zerbitzua	3	% 66,6	% 66,6	Bai	
394	Produkzioa	51	% 49	% 92,1	Bai	
395	Telefono-komunikazioen zerbitzuak	25	% 72,7	% 72,7	Bai	
U163	Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola	17	% 76,4	% 93,7	Bai	% 54,0

**Administrazio-atal elebidun izateko baldintzak betetzen dituztenak:**

	<b>Atal administratiboak</b>	<b>Lanpostu - kopurua</b>	<b>Derrigortasun - datak</b>	<b>HE egiaztatuta</b>	<b>Atalburu euskalduna</b>	<b>IRI plaza elebidunak</b>
111	Graduondoko ikasketen zerbitzua	18	% 83,3	% 67,7	Bai	
84	Ikerkuntzako unitatearen zuzendaritza	36	% 63,8	% 83,3	Bai	
C352	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Erizaintza Leioa)	12	%75	%91,6	Bai	% 66
86	Nazioarteko I+G bulegoaren zuzendaritza	8	%75	%87,5	Bai	
U310	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	42	%78,57	%83,3	Bai	% 61
C324	Zuzenbide Fakultatea (Bizkaiko Campusa)	9	%77,7	%72	Bai	% 66

**Administrazio-atal elebidun izateko proposamena:**

	<b>Atal administratiboak</b>	<b>Lanpostu-kopurua</b>	<b>Derrigortasun- datak</b>	<b>HE egiaztatuta</b>	<b>Atalburu euskalduna</b>	<b>IRI plaza Elebidunak</b>
392	Bezeroen arloa	49	% 53	% 89,7	Bai	
U010	Irakasle- ikertzaileen arloko errektoreordea	8	% 50	% 50	Bai	
332	Prebentzio Zerbitzua	17	%59	%64,71	Bai	
U080	Unibertsitateko Biblioteka	9	%55,5	77,7	Bai	
63	Argitalpen Zerbitzua	16	%56	%75	Bai	

**Administrazioko beste unitate batzuk**

	<b>Atal administratiboak</b>	<b>Lanpostu - kopurua</b>	<b>Derrigortasun - datak</b>	<b>HE egiaztatuta</b>	<b>Atalburu euskalduna</b>	<b>IRI plaza elebidunak</b>
C345	Bilboko Ingeniaritza Eskola I	56	% 80	% 91,07	Bai	% 36,5
91	Akademia Antolakuntza/ Akademia Antolakuntzako gestio-aholkularia	4	% 100	% 25	Bai	
C251	Ekonomia eta Enpresa Fakultate (Gipuzkoako atala)	11	% 81,1	% 90,9	Ez	% 77,9
C321	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)	43	% 83,7	% 83,7	Bai	% 45.7
C151	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)	8	% 75,0	% 75	Ez	% 75,8
87	Ikerkuntzako kudeaketa ekonomikoa	7	% 57,1	% 28,5	Ez	
U038	Odontologia Klinika	9	% 44,4	% 44,4	Bai	
311	Kontabilitaterako zerbitzua	21	% 57	% 52,38	Ez	
413	Kontrataziorako eta erosketarako zerbitzua	19	%53	% 63,16	Ez	
391	Rudeaketa Informatikarako Zentroa (KIZ)	25	%52	%68	Ez	
U061	Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia	3	%33,3	%100	Bai	
393	Proiektuak	16	%38	%81,25	Ez	
142	Psikologia aplikatuaren zerbitzuko zuzendaritza	2	%100	%0	Ez	
82	SGIKERren zuzendaritza	48	%48	%56,25	Ez	
C224	Zuzenbide Fakultatea (Gipuzkoako Campusa)	13	%92	%76,92	Ez	% 63



UPV/EHUko EUSKARAREN IV. PLAN GIDARIA (2023-2027)

U215	Kimika Fakultatea	20	% 85	% 100	Bai	% 40,6
------	-------------------	----	------	-------	-----	--------